


Zer berri?

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

Apirila-Ekaina

2019

KOMUNIKAZIO TALDEA komunikazioa@maltuna.eus


//Aurkibidea

1- Sarrera

2- Kuxkuxeroak

3- Albiste izan dira...

4- Agenda



MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

zure zubia

1//Sarrera



Heldu da eguna.
Askotan ametsa ote zen pentsatu dugu. Baina azkenean heldu da eguna. Irailaren 2an, eraikin berrian egongo gara.
Miguel Altuna Lanbide Heziketak merezi dituen instalakuntzak eta ekipamenduak edukiko ditu.
Gure Elementalari agurra emateak nostalgia ematen badu ere, ezin ahaztu eraikin berriak etorkizunera zabaltzen gaituela.
Beraz, zubitik zubira, bideak eraikitzen.

Espero dugu aldizkari honekin gozatzea!

2//KUXKUXEROAK



Cesar Perez. Automatizazio eta Robotika Industrialeko ikaslea. Lan-praktikak amaitu eta enpresa berean lanean jarraituko duen ikasleetako bat.


Igor Molano. Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko ikaslea. Lan-praktikak Poloniako Wroclawn egin ditu Erasmus+ bidez.



// Josune Irazabal

Miguel Altuna LHIIko Zuzendaria.

Zein egoeratan aurkitzen da orain Miguel Altuna LHII?
Egoera berezi batean gaude; Batetik eraikin zaharra hustutzeko lanetan eta eraikin berria betetzen bestetik.
91 urtez egon gara Bergarako erdigunean eta pixkanaka, zubian azaltzen den mezuak dioen moduan, poliki-poliki bagoaz. Dagoeneko tailerrak hustu ditugu eta ekainean zehar ekipamenduak eraikin berrira mugitzen joango gara eta ikastetxe berria betetzen.





Epeak zeintzuk izango dira?
Aurrematrikulak (ekainaren 3tik 14ra) eta matrikulak (uztailaren 11tik 17ra) behin pasata, kurtsoa eraikin zaharrean ixtea da gure asmoa, uztaila amaieran "OFF" emango diogu eta irailaren 1ean, ikastetxe berriari "ON" ematea.



Zein berrikuntza izango ditugu hurrengo ikasturtean?
Formazio eskaintza aldetik Automatizazioa eta Robotika Industriala zikloa eskaintza partzialean ere eskainiko dugu (3 urtetan ikasteko aukera).
Gainontzean, dagoeneko ikastetxe osora zabalduta dugun ETHAZI metodologiarekin jarraituko dugu eta geroz eta indar handiagoa hartzen ari den DUAL ereduarekin, bigarren ikasturtean ikasketak eta lana txandakatzeko aukerarekin.

Eta noski, Lanbide Heziketako estrategiarekin jarraituz, ikasleek beraien lan praktikak Europako beste lurralde batzuetan egiteko aukera izaten jarraituko dute Erasmus+ bidez eta beraien enpresa sortu nahi dutenentzat, Urratsbat programarekin beraien proiektua aurrera eramateko laguntza eskaintzen jarraituko dugu.

Hezkuntzako Sailburutzatik bultzatzen diren ekimen guztietan parte hartzen jarraituko dugu eta ahalik eta ondoen egiteko lanean.

Zein erronka aurreikusten dituzu hurrengo kurtsorako?
Hurrengo ikasturterako erronka desberdinak dauzkagu; Lehenengoa, eraikin berria martxan ipintzea eta gure tokia aurkitzea; Bergarako erdigunetik kanpoaldean egotera pasako gara eta beraz, bailaran egoitza berria txertatzea. Beste erronka bat daukaguna, irailerako antolatzen ari garen ICFGren 52.en Nazioarteko Konferentzia da. Mundu osoko adituen partaidetza aurreikusten dugu eta hori Lanbide Heziketako zentru bezala oso garrantzitsua da Informazio guztia icfg2019.maltuna.eus orrian aurkitu dezakezue.
Eta hirugarren bat, eraikin berrian egin ditugun azken inbertsioak oso fokalizatuta daude 4.0ra: Gure tailerrak, metodologia berrietarako guneak sortzea,.. espazio berrietara moldatu eta espazio hauetan lan egiten ohitzea.




Txutxumutxuei erantzunez...

... inaugurazioa noizko?
Bere garaian Miguel Altunako zubian kontagailu bat ipini genuen atzerako kontaketarekin, 0ra iritsi zen eta orain zeropeko kopuru bat ageri da... Inaugurazioaren data ez dago guztiz gure esku, baina eguna iristean, herritar guztientzako ateak zabalik izango dituen ekitaldi bat izatea gustatuko litzaiguke.



...eskola zaharrarekin zer?
Ez da gure erabakia. Gaur egungo erakin zaharraren zati bat Eusko Jaurlaritzarena da eta beste zati bat Bergarako Udalarena. Beraz, beraien artean adostuko dute zer egin eraikin honekin.

... taberna egongo da?
Lanbide Heziketako zentro honek ez du tabernarik izango. Herrian badaude tabernak eta ez gaude hain aparte ere. Miguel Altunako ikasle eta langileentzako jangela bat egongo da, izan ere DUALagatik edo metodologia berriek hala eskatzen dutelako, ordutegiek malgutasuna eskatzen dute.



... aparkalekurik badago?
Bertatik pasatzen direnek ikusi dezaketen moduan, dagoena dago. Ez da ahaztu behar egun Gureak enpresarena den aparkalekua ere badagoela, nahiko handia da. Poliki-poliki joango gara ikusten zein behar dagoen, zenbat gerturatuko diren kotxez, oinez edo garraio publikoan. Bertan ikusiko da zenbat aparkaleku beharko diren eta aparkatzeko arazoa etortzen bada, irtenbidea aurkitzen ahalegindu beharko gara.

// Cesar Perez

Bergara.
Automatizazioa eta Robotika Industriala Goi-Mailako Heziketa Zikloko lan-praktikak amaitu eta enpresa berean jarraituko du lanean.
Alumno de Automatización y Robótica Industrial del Miguel Altuna LHII. Finalizadas las prácticas, seguirá trabajando en la misma empresa.






1.**¿Dónde has realizado las prácticas?**
He realizado las prácticas en Tximista, una empresa dedicada al mantenimiento de automatismos industriales ubicada en Urretxu.

2. **¿Comó han ido las prácticas? Cuentanos tu experiencia.**
Las prácticas han ido muy bien, me han servido para ampliar todos los conceptos aprendidos durante el ciclo y saber realmente cómo desenvolverme dentro de una empresa de este sector.
Creo que la duración de las prácticas también es lo suficiente.



3. ¿Cómo ha sido el seguimiento realizado por el instructor de la empresa y el tutor del Miguel Altuna LHII?
El trato con mi instructor ha sido muy bueno, siempre ha intentado que aprendiera cada tarea que se realizaba y con mucho interés en que estuviera a gusto. El tutor del Miguel Altuna también ha realizado el seguimiento de las prácticas.



4. ¿Te han ofrecido un contrato de trabajo?
Si, me han ofrecido un contrato de trabajo por un año.

// Igor Molano Pérez

30 urte. Bergara.
Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko ikaslea. Lan-praktikak Poloniako Wroclaw-ko enpresa batean egin ditu Erasmus+ programaren bidez.

Zein izan zen Erasmus + egitekoren arrazoia?
Atzerrian lana egiteaz aparte, asko aportatzen du elkarbizitzak, bertako jendeak, beste Erasmus kideak, e.a.
Esperientzia hori bizitzea eta jakitea zer nokako autonomia daukadan ikusteko oso ondo etorri zait eta ingelesa praktikatzeko ere aukera izan dut, nahiz eta lantegian ez erabili, kalean erabili dut. Polakoz ere zerbait ikasi dut.

Zein izan da lehen esperientzia?
Lehen esperientzia, etxera ailegatzerakoan pisukideak niri itxoiten zeuden nirekin zentrora joateko eta autobusean joan ginen telefono mugikorraren laguntzarekin.

Zer ikasten da horrelako egoeretan?
Adibidez zure kabuz hiritik mugitzen ikasten da eta hori esan dezaket autonomia dela.

Gauzarik kuriosoena?
Kuriosoena, Poloniako jendea izan da; denetarik dago eta oso jatorrak dira, baina arlote (bagamundo) asko daude eta turistengana doaz dirua eskatzera. Hala ere, ezetz esaten badiezu joan egiten dira. Alde horretatik errespetuosoak dira.



// Igor Molano Pérez

Zer izan da gutxien gustatu zaizuna?
Joan den hilabetea txarrena izan da. Izan ere kolpe bat hartu nuen behatzean atzazala jausiz (lan egiten) eta aste bat egon nintzen lanera joan gabe. Horretaz gain, ahoko infekzio bat izan nuen eta oso gaizki pasatu nuen. Baina ondo zaindu zidaten eta horregatik ere pozten naiz.

Gomendagarria bada, zergatik da gomendagarria?
Pisu-kideekin gustura nago; Donostiako 3 gazte eta Lekunberriko beste gazte bat gara eta nahiz eta 10 urteko aldea izan ondo konpontzen gara. Donostiako mutil bar kenduta besteok Chorsera joan gara lanera, 2 erreleboetara binaka. Pisua berri berria estreinatzako zegoen eta etxea hiriaren kanpoaldean egon arren (autobusez 30 min.), lantokira 10 minutuan oinez iristen ginen, alde horretatik oso ondo dago.





3//Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Engendering STEM proiektua aurkezten Tknikako OPEN DAY ekitaldian

Presentando el proyecto Engendering STEM en la jornada OPEN DAY de Tknika



Lainoztatu 4×4 proiektua saritua izan da

Premiado el proyecto Lainoztatu 4×4



The Future of Manufacturing in Europe proiektu pilotuan

Participando en el proyecto piloto The Future of Manufacturing in Europe



Ikaslan Gipuzkoako zuzendari eta taldeak, Irlandako LH ezagutzeko aukera izan du

Directores y grupos de Ikaslan Gipuzkoa, han visitado la FP de Irlanda



Maiatzak 16: Ateak Zabalik jardunaldi arrakastatsua

16 de Mayo: Exitosa jornada de PUERTAS ABIERTAS



Gureak Industrialen egoitza berria ezagutzen

Conociendo las nuevas instalaciones de Gureak Industrial



Enpresek beraien LH DUAL aukerak eta baloratzen dituzten gaitasunak aurkeztu dituzte

Las empresas presentan sus opciones para la FP DUAL y las competencias que valoran



Agur Elementala, Kaixo Miguel Altuna bideoa. Ikusi duzu?

¿Has visto el video Agur Elementala, Kaixo Miguel Altuna?



6//Albiste izan dira...

Bergarako ikastetxeok EA21 proposamenak eta dekalogoa aurkeztu ditugu

Los centros educativos de Bergara hemos presentado el decalogo EA21




Lehen sorospenei buruzko formazioa jaso dute Miguel Altunako ikasleek

El alumnado de Miguel Altuna, en la formación de Primeros Auxilios



Eskaintza zabalagoa izango dugu datorren 19/20 ikasturtean

Ampliamos la oferta educativa para el próximo curso 19/20



Lanbide Heziketako Nazioarteko Kongresua izan da Donostian

Se ha celebrado el Congreso Internacional de Formación Profesional en Donostia



Informazio guztia: www.maltuna.eus

Kontaiguzu!

Miguel Altuna Lanbide Heziketako langilea edo ikaslea bazara, zuk ere parte hartu dezakezu aldizkari honetan!

Nola? Ikastetxeari edo ikasketei loturik, albiste izan daitekeen irteera, lehiaketa, sari, bisita,... egiten baduzu, KomunikazioArduraduna@maltuna.eus helbidera bidaliz (informazio labur bat eta argazki batzuk, posible bada).

*** Langileek ikastetxeko SITEa erabili dezakete.**

KOMUNIKAZIO TALDEA
KomunikazioArduraduna@maltuna.eus





*Aurrematrikulak eta matrikulazioak,
Ibargarai kaleko eraikin zaharrean egingo dira.
Ikasturte berria, eraikin berrian hasiko dugu.

Las prematriculaciones y las matriculaciones se realizarán en las instalaciones actuales de Ibargarai.
Daremos comienzo al nuevo curso escolar en el nuevo edificio.

52nd Donostia - San Sebastián
ICFG | 2019
International Cold Forging Group

Miguel Altuna LHII guztiz integratua dago Debagoiena eskualdeko (Euskadi) industriarekin, eta etengabe dihardu lan-munduak geroz eta gehiago eskatzen dituen langile gaituak eta espezializatuak prestatzeko lanean.
Kontuan izanda Espainiako hotzeko forjaketako enpresen kontzentrazio handiena duen eremua Euskadi dela eta fabrikazio aurreratuari eta metalgintzako formazioaren inguruko ikerketa zentro, unibertsitate eta Lanbide Heziketako zentroak ditugula, aurtengo **ICFGren 52. osoko bilkura**ren antolaketa, Miguel Altuna LHIIren esku dugu.

Horregatik, **2019ko irailaren 15etik 18ra bitartean, Donostian ospatuko den kongresuan antolatzen ari gara.**

Informazio guztia: **icfg2019.maltuna.eus**



El Centro de Formación Profesional Miguel Altuna está completamente integrado en el tejido industrial de la comarca del Alto Deba (Euskadi), y ofrece, a través de diferentes vías de formación y programas de especialización, el grado de cualificación que el mundo laboral tanto reclama. Euskadi es el área con mayor concentración de empresas de Forja en Frío del estado, así como de centros de investigación, universidades y centros de Formación Profesional del sector de metal y la fabricación avanzada. Por esa razón y como socio de ICFG, aprovechamos para invitarte a la 52º reunión plenaria del ICFG será organizada por el Miguel Altuna LHII y que se celebrará del 15 al 18 de Septiembre de 2019, en Donostia - San Sebastián,
Toda la información en: **icfg2019.maltuna.eus**

Hurrengo alea:
2019/2020 ikasturtean izango da

Zer iruditu zaizu aldizkari hau? Iritzia eman edo ekarpenen bat egiteko, idatziguzu KomunikazioArduraduna@maltuna.eus helbidera.
Eskerrik asko!

Komunikazio Taldea.